2022ko urtarrilean erregistratutako langabezia

2022ko urtarrilean zehar LANBIDEko bulegoetan % 0,96 langabe gehiago erregistratu dira, langabe kopurua 115.944 da, aurreko hilean baino 1.099 gehiago. Hil honetako bilakaera bat dator serie historikoarekin. Urtarrilean normalean langabezia hazi egiten da, gainera hil honetan baino era esanguratsuagoan. Gauzak horrela, hil honetako hazkundea azken 15 urteetako 3. apalena da. Duela 2 urte, normaltasun egoeran, urtarrilean langabezia hil honetan baino gehiago hai zen (3,05%).



	urt. 07	urt. 08	urt. 09	urt. 10	urt. 11	urt. 12	urt. 13	urt. 14	urt. 15	urt. 16	urt. 17	urt. 18	urt. 19	urt. 20	urt. 21
Saldoa	6.811	9.456	7.486	7.157	10.473	6.198	6.797	6.394	4.775	2.904	779	1.076	3.487	1.490	1099

Aurreko urteko urtarrilarekin alderatuz, 14.786 pertsonetan murriztu da langabezia. 2021ko otsailarekin alderatuz (krisi hasi aurreko hilabetea) 1.295 langabe gutxiago zenbatu dira, eta 2019ko urtarrilarekin alderatuz, krisi aurreko azken urtarrila, 1.705 gutxiago.

Langabeziaren urte arteko saldoaren bilakaera



- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean murriztu egin da langabezia (-395) eta emakumezkoen artean igo (+1.494). Gabonetan kanpainaren ondorioz gelditutako jardueren eraginez (ostalaritza eta merkataritza) hazi da emakumezko langabetuen kopurua. Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da (-7.582) emakumezkoen arten baino (-7.204). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa daramate; 2020ko urtarrilarekinn alderatuz, 672 gizonezko gutxiago daude langabezian, emakumezkoak, ordea, 1.033 gutxiago. Gaur egun langabeen % 56,2 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia hazkundea adin tarte guztietan izan da, 35-44 adion tartean izan ezik (-% 0,64). Hazkunde handiena 25 urte azpikoen artean erregistratu da (+% 4,22); 25-34 adin tarteak jarraitu dio (+% 1,42). Urte arteko bilakaeran, korrelazio handia ikus daiteke langabeziaren beherakadaren eta langabeen gaztetasunaren artean; 25 eta 34 urte bitartekoen artean % 19,22 murriztu da, 25 urte azpikoen artean % 16,71 murriztu da; 54 urte gorakoen artean % 0,56 hazi da.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Urtarrilean langabezia industria sektorean (-% 4,52), lehen sektorean (-% 2,89) eta eraikuntzan (-% 2,13) murriztu da; zerbitzu sektorean, berriz, hazi egin da (+% 2,31). Esperientziarik ez dutenen artean % 1,34 hazi da langabezia hil honetan. Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da industrian (-% 15,04) eta zerbitzu sektorean (-% 11,34) egon den beherakada nabarmena. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 8,20 murriztu da.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren gorakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

- 47 Txikizkako merkataritza +567
- 87 Egoitzetako laguntza +380
- 56 Janari eta edarien zerbitzuak +370
- 81 Higiezinen zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak +357
- 88 Ostatu gabeko zerbitzu sozialen jarduerak +175

Aitzitik, urtarrilean erregistratutako langabeziaren murrizketa izan duten jarduerak hauek izan dira:

- 78 Enpleguarekin erlazionatutako jarduerak -524
- 85 Hezkuntza -365
- 25 Produktu metalikoen fabrikazioa -170
- 24 Metalurgia -145
- 41 Higiezinen eraikuntza -138

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 285 pertsonatan murriztu da (-% 0,49) eta epe laburrekoa 1.384 pertsonatan igo (+% 2,45). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean murrizketa eman da (-% 7,85) eta epe luzekoen artean, aldiz, % 14,51 murriztu da. Krisia luzatzen ari den heinean, iraupen luzeko langabezia nabarmen handitzen ari da; gaur egun 58.120 langabe iraupen luzekoak dira; langabe guztien % 50,1a.

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Urtarrileko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 0,63 hazi da, abenduan baino 122 langabe gehiago, 19.536 langabe guztira; 2022ko urtarrilean bilakaera onena izan duen lurraldea da. Gipuzkoan % 1,01 hazi da, 310 pertsona gehiago daude langabezian abenduarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 30.863koa da). Azkenik, Bizkaian, urtarrilean baino 667 langabe gehiago daude (% 1,03ko hazkundea), langabetu kopurua 65.545 da; hil honetan bilakaera okerrena erregistratu duen lurraldea izan da.

Urte arteko saldoari erreparatuz Arabak erregistratu du eboluzio hoberena % 11,90eko murrizketarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 11,76ko murrizketarekin eta azkenik Bizkaian % 10,92 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 530 pertsonatan hazi da langabezia (+% 2,39), Vitoria-Gasteizen 158 pertsonatan hazi da (+% 1,05) eta Donostian 280 pertsonatan hazi da (+% 3,8). Hazkunde nabarmenak izan dituzten zenbait eskualde, Ezker Eskualdea (+371), Gobela (+802) eta Oarsoaldea (+75) izan dira. Bestalde Durangaldean (-283), Debagoienan (-97) eta Lea-Artibaien (-77) erregistratu dira murrizketa nabarmenenak.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 18,84), Sestao (% 17,87), Balmaseda (% 15,96), Alonsotegi (% 15,93) eta Bastida (% 14,91%).

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2022ko urtarrilean 38.610 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 727 langabe gehiagok. Langabeen % 33,3k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 21.239 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,3 dira horiek. 17.371 langabek (% 15,0), berriz, langabezia prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 35,3), Araban % 32,8koa da eta Bizkaian % 32,5ekoa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0.3 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz 1,5 puntu murriztu da.

Urtarrilean ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua hazi egin da eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua baita ere.

• JATORRIA

Langabeen % 16,2 (18.795 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia gehiago hazi da atzerritarren artean (+% 1,26) bertakoen artean baino (+% 0,90). Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 10,47 murriztu da, eta bertakoen artean % 11,47.

Langabe atzerritarren % 34,3 Afrika iparraldekoak dira, % 23,3 Latinoamerikatik datoz, % 18,2 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,8 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,8, azkenik, Asiatik. Urtarrilean Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean hazi da gehien langabezia (+264); Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoen artean, aldiz, murriztu da gehien (-52).

• IKASKETA MAILA

Langabeen % 60,8k (70.508 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 469 langabetu gehiago erregistratu dira. Talde horretan, % 0,67 hazi da langabezia azken hilean. Azken urtean % 9,68 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,9 dira. Talde horretan % 2,03 hazi da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 13,35 murriztu.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 21.454 dira, hau da, langabeen % 18,5. Talde hau urtarrilean zehar % 2,84 hazi da, eta azken urtean % 13,35 murriztu da.

Azkenik, langabeen % 11,8k (13.679 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 1,21 murriztu da langabezia azken hilabetean eta % 16,72 murriztu azken urtean.

- KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 17.173 langabe gehiago daude aurreko hilean baino (% 0,55eko hazkundea). Guztira 3.123.078 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 0,96 hazi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 2,47 hazi da, Errioxan % 1,55 hazi, Kantabrian % 1,67 hazi da eta Gaztela eta Leonen % 1,01 hazi. Katalunian % 0,72 hazi da eta Madrilen % 2,67 murriztu.

Lan-eskatzaile langabeak 2022eko urtarrilean

	Urt-2022	Abe-2021	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	50.836	51.231	-395	-0,77
EMAKUMEZKOAK	65.108	63.614	1.494	2,35
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	9.190	8.818	372	4,22
GIZONEZKOAK	4.813	4.639	174	3,75
EMAKUMEZKOAK	4.377	4.179	12	4,74
25-44 URTE:				
GUZTIRA	45.338	45.228	110	0,24
GIZONEZKOAK	18.978	19.402	-424	-2,19
EMAKUMEZKOAK	26.360	25.826	534	2,07
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	61.416	60.799	617	1,01
GIZONEZKOAK	27.045	27.190	-145	-0,53
EMAKUMEZKOAK	34.371	33.609	762	2,27
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.556	2.632	-76	-2,89
INDUSTRIA	13.088	13.708	-620	-4,52
ERAIKUNTZA	7.553	7.717	-164	-2,13
ZERBITZUAK	78.337	76.568	1.769	2,31
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.410	14.220	190	1,34
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA				
BIZKAIA	19.536	19.414	122	0,63
GIPUZKOA	65.545	64.878	667	1,03
EAE	30.863	30.553	310	1,01

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.073	10,9%	46	1,14	-433	-9,61
Oarsoaldea	3.588	9,8%	75	2,13	-365	-9,23
Donostia-S.Seb.	7.647	8,6%	280	3,80	-1.236	-13,91
Donost.Mendebaldea	3.089	8,2%	19	0,62	-341	-9,94
Tolosaldea	1.916	8,1%	21	1,11	-246	-11,38
Urola Erdia	1.204	7,7%	-12	-0,99	-204	-14,49
Goiherri	1.568	7,2%	8	0,51	-244	-13,47
Deba Garaia	2.373	7,8%	-97	-3,93	-300	-11,22
Deba Behera	2.679	10,1%	-54	-1,98	-335	-11,11
Urola Garaia	1.050	8,6%	-10	-0,94	-164	-13,51
Urola Kosta	1.676	7,4%	34	2,07	-244	-12,71
GIPUZKOA	30.863	8,7%	310	1,01	-4.112	-11,76
Vitoria-Gasteiz	15.138	12,0%	158	1,05	-2.131	-12,34
Aialako Ibarra	2.218	11,9%	-60	-2,63	-261	-10,53
Arabar Errioxa	697	12,9%	2	0,29	-80	-10,30
Arabako lautada	727	9,6%	16	2,25	-100	-12,09
Gorbeia inguruak	314	6,7%	-2	-0,63	-27	-7,92
Arabako Ibarrak	415	8,1%	15	3,75	-55	-11,70
Arabako Mendialdea	96	6,2%	-6	-5,88	-27	-21,95
ARABA	19.536	11,7%	122	0,63	-2.640	-11,90
Gobela	4.707	9,4%	80	1,73	-606	-11,41
Txorierri	2.201	9,6%	51	2,37	-324	-12,83
Uribealdea	3.044	9,2%	19	0,63	-403	-11,69
Durangaldea	3.215	8,7%	-283	-8,09	-617	-16,10
Busturialdea	2.160	10,1%	-45	-2,04	-273	-11,22
Lea-Artibai	981	8,2%	-77	-7,28	-131	-11,78
Enkarterriak	1.962	12,9%	36	1,87	-174	-8,15
Arratia-Zornotza	1.511	8,7%	-54	-3,45	-147	-8,87
Arratia-Nerbioi	1.319	10,3%	19	1,46	-149	-10,15
Bilbo	22.661	13,4%	530	2,39	-2.680	-10,58
Ezkerraldea	17.231	13,9%	371	2,20	-1.886	-9,87
Ibaizabal	4.468	11,1%	21	0,47	-616	-12,12
BIZKAIA	65.545	11,8%	667	1,03	-8.034	-10,92
EAE	115.944	10,8%	1.099	0,96	-14.786	-11,31

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dulantziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.